



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

Ipar Haizearen Erronka filmaren
emakumezko pertsonaien analisia:
rolak, espazioak eta ekintzak

Maitane Junguitu Dronda

153-159 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.19>



***Ipar Haizearen Erronka* filmaren emakumezko pertsonaien analisia: rolak, espazioak eta ekintzak**

Junguitu Drona, M.
Ikertzaile independentea
mjunguitu@gmail.com

Laburpena

Dagokigun ikerketa honetan *Ipar Haizearen Erronka* (1992, Juanba Berasategi) euskal animazio luzemetraiaren analisia egiten da genero ikuspuntu batetik. Hau, zehazki, emakumezkoak diren pertsonaien inguruko analisi kuantitatibo eta kualitatiboa da, hauen rola, ekintza motak eta ekintza horien espazioa aztertzen delarik. Ikerlan honen abiapuntua *Ipar Haizearen erronka* filmaren gizona eta emakumezko pertsonaien azterketa sakonago bat da. Aurkezten den testu hau azterlan horretatik egindako ekarpen bat da. Ikerketa honen bidez euskal animazio zinema komertzialaren ikerketa orotarikoak beharrezkoak direla ikusarazi nahi da, animazioak euskal zinemagintzan duen garrantzia azpimarratuz.

Hitz gakoak: Animazioa, Marrazki Bizidunak, Zinema, Euskal zinema, Generoa, Feminismoa

Abstract

This research analyses the female characters of the animated feature Ipar Haizearen Erronka (1992, Juanba Berasategi). We approach these characters from gender studies using qualitative and quantitative techniques. We specifically focus on the roles, actions, and the space that they develop those actions. This study is a small sample of a deeper research about the male and female characters of the movie. With this investigation we want to underline the need of studying commercial Basque animation cinema from a variety of points of views, including of course gender studies. Also, we want to highlight the importance of animated movies within the Basque Cinematography.

Keywords: Animation, Cartoons, Cinema, Basque Cinema, Gender, Feminism

1. Sarrera eta motibazioa

Ikerketa honen helburua genero ikuspuntutik *Ipar Haizearen Erronka* (1992, Juanba Berasategi) filmaren pertsonaiak analizatzea da. Hasteko, ikerketa bultzatu duen motibazioa azalduko da, zinemaren genero ikerketaren beharra adieraziz, bereziki haurrentzako edukiak direnean. Ondoren, arloko egoera aipatuko da, gure aztergaiak, euskal animazio zinema, bibliografia urria duela azpimarratuz. Ikerketaren helburua azaltzearekin batera erabiliko dugun metodologia aurkeztuko da, hain zuzen ere, filmaren pertsonaien azterketa burutzeko erabiliko den eduki analisia. Jarraian ikerketaren emaitzak erakutsiko dira eta horietatik abiatuz ondorio batzuk plazaratuko dira. Bukatzeko, ikerketa honetan sakontzeko asmoz, etorkizunari begira ikerlerro batzuk zehaztuko dira.

Azterketa honen abiapuntua da genero ikerketaren barnean, hedabideen eta zinemaren analisia alor garrantzitsu bat dela da. Izan ere, hauek gizarte ereduaren erakusle dira gizarteratzean eragina dutelako eta gizarte-balioak zabaltzeko erabiltzen direlako.

Annete Kuhnen (1991) ustez beharrezkoa da zinemaren analisi feminista egitea. Azterketa hau modu anitzetako izan daiteke zinema dimentsio ugari eskaintzen dituelako. Analisi horiek, gainera, patriarkatuak ezarritako gizarte harremanak kontuan hartu behar dituzte. Edukiei dagokienez Kuhnek irudiak, irudikapenak, esanahiak eta ideologiak aipatzen ditu esplizituki eta horiek izango dira hain zuzen ere ikerketa honen ardatzak. Testuinguru horretan Bechdel testa erreminta ezaguna eta erabilgarria dugu, emakume pertsonaien ezaugarriak, interakzioak eta oro har istorioan duten garrantzia neurtzeko baliagarria delako.

Euskal animazio luzemetraien kasuan gehienak haurrei zuzendutako filmak dira eta *Ipar haizearen erronka* ez da salbuespena. Núria Rajadell Puiggròs et al-ek (2005) adierazten dute haurrei zuzendutako ikus-entzunezko edukiei balio hezitzaile bat atxikitzen zaiela eta horregatik garrantzitsua da hauek aztertzea. Film hauek balio positibo horien isla izatea espero den heinean, beharrezkoa da

hauen ezaugarriak genero ikuspuntu batetik aztertzea, esaterako, emakume pertsonaien azterketa ardatz nagusi bezala hartuta.

Helburu hezitzaileak alde batera utzita Amelia Cano Calderonek (1993) gogorarazten digu zinema industria baten baitan egituraturako produktu kulturala dela eta besterik gabe entretenimendura bideratuta egon daitekeela. Cano Calderonek adierazten duenez, haurrentzako zinema, haurrentzako literatura bezala, modu kritikoa aztertzeko baliabideak eskaini behar dira. Horregatik beharrezkoa da haurren irakasleek zinema analitzatzeko baliabide eta ezagutzak sustatzea.

Animazioari dagokionez, eta zehazki luzemetraia kasuan, The Walt Disney Company erreferente nagusi bat da. Jane Batkinek (2017) dio hurrek Disneyren filmekin konektatzen dutela eta ikusten dituzten irudi eta istorioek eragina dutela beraien haurtzaroan. Batkinen ustez, haurrengan eragin zuzena dauka fikziozko pertsonaien identitateen eraketak. Beraz, pertsonaien analisiak garrantzi berezia dauka.

Ipar Haizearen Erronka filma hautatu da euskal animazio zinemaren historian mugari bat delako. Hau Euskal Herrian ekoiztutako bigarren luzemetraia da. *Ipar Haizearen Erronka*ren aurretik soilik beste film bat estreinatu zen, *Kalabaza tripontzia* (1985, Juanba Berasategi). Hau laburmetraiez osatutako pelikula da eta analizatuko dugun filma, ordea, 70 minutuko istorioa da.

Pelikula hau EPISA, Euskal Pictures Internacional enpresak burutu zuen. Honen estreinaldiari lotuta polemika bat egon zen, izan ere, nahiz eta gaur egun zuzendaritza Juanba Berasategiri aitortua egon, hasieran Maite Ruiz de Austri eta Carlos Varela zuzendarien izenean aurkeztu zen¹. *Ipar Haizearen Erronka*ren estreinaldiaren ondoren Maite Ruiz de Austri filmaren jarraipena —*Ipar haizearen itzulera* (1993, Maite Ruiz de Austri)— eta telesail bat zuzendu zituen. Ez hori bakarrik, Ruiz de Austri Goya saria irabazi zuen *Ipar haizearen itzulera* luzemetraiarekin.

Filmaren sinopsia honakoa da: Anne eta Peiot bikiak XVI. mendeko haur euskaldunak dira. Hauek baleontzi batean Terranovara² joaten dira. Bertan Watuna, Mic-Mac indiarren buruzagiaren semea ezagutuko dute. Hirurek batera Athanasius maltzuraren aurka egingo dute baleak babesteko.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Animazioa, bere forma anitzetan (telesailak, laburmetraiak, luzemetraiak...), ikuspuntu askotik abiatuta aztertu da, genero ikerketak barne. Alabaina, euskal animazioari buruzko ikerketak urriak dira. Arlo horretan ikertzaile nagusiak Begoña Vicario eta Maitane Junguitu Drona dira, hurrenez hurren animazio esperimental eta komertziala aztertu dituztenak. Gai honi buruzko bibliografia gutxi dagoenez, bi ikerlari hauek ikuspuntu orokor bat aurkezten dute beraien ikerketa nagusietan. Hortik abiatuta gai zehatzagoak lantzen dituzten ikerketak pixkanaka aurkeztu dituzte, adibidez, hizkuntzaren erabilerari, errepresentazioari edota generoari lotutakoak. Edonola ere, badira irudi errealeko euskal zinema genero ikuspuntutik ikertzen dituzten lanak, Euskal Herrian eta atzerrian burututakoak. Beraz, animazio luzemetraiei buruzko genero azterketak irudi errealekoekin alderatzeko bidea badago puntu komunak bilatzeko.

Kontuan hartuta bibliografia urri horretatik abiatzen dela ikerketa, euskal animazioari buruzko genero ikerketan aitzindaria izango da. Horrela bada, ikerketa honen helburua *Ipar Haizearen Erronka* filma analitzea da, zehatzago honako puntuak aztertuko direlarik: emakumezko pertsonaien rola eta istorioan duten garrantzia beraien agerpen kopuruaren arabera, pertsonaia horiei lotutako ekintzak eta ekintza horiek burutzen dituzten espazioen identifikazioa (publikoa edo pribatua), beraien egitekoa gizarlean eta beraien itxura edo diseinua³.

Erabiliko den metodologia eduki analisia izango da eta horretarako zehazki, edukiaren analisi taula bat diseinatu da. Taula horretan pertsonaiak analitzatzeko bost aldagai definitu dira. Alde batetik datu

¹ Filmaren ekoizpenaren testuingurua eta autoretzaren inguruko nondik-norakoak hobeto ezagutzeko Maitane Junguitu Dronaren (2019) doktore tesiaren irakurketa gomendatzen da.

² Euskaraz Ternua izena dauka lurraldeak, baina filmaren euskarazko bikoizketan Terranova izena hartzen du.

³ Aurkezten den ikerketa honetan soilik pertsonaia femeninoen inguruko emaitza eta ondorioak aurkezten dira. Dokumentu hau ikerketa sakonago baten erakuslea da, non gizonezko pertsonaiak ere aztertzen diren.

kuantitatiboak aztertuko dira (zenbat emakumezko pertsonaia dauden eta zenbat aldiz agertzen diren) eta bestetik pertsonaia horien ezaugarri kualitatiboak identifikatuko dira. Honako aldagaiak izango dira analisi taulak aurkezten dituenak:

1. taula. Analisi taularen aldagai nagusiak

ALDAGAI PERTSONALAK	
Sexua	Emakumezkoa / Gizonezkoa / Mistoa (gizon eta emakume taldea)
Helburuak eta itxura	Deskribapen psikologiko, sozial eta fisikoak.
EGOERAREN ALDAGAIK	
Agerpenak	Zenbat aldiz agertzen den pertsonaia
Egoera	Espazio publikoa / pribatua (kantitatea eta deskribapena)
Ekintza	Aktiboa / pasiboa (kantitatea eta deskribapena)

Lehenengo mailako pertsonaiak sei agerpen edo gehiago dituztenak dira. Hiru eta bost agerkunde artekoak bigarren mailako pertsonaiak dira eta bat edo bi aldiz agertzen direnak intzidentalak.

3. Ikerketaren muina

Jarraian ikerketaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Hasteko pertsonaia femeninoak identifikatuko ditugu eta hauen agerpen kopuruaren arabera beraien protagonismoa zehaztuko dugu. Ondoren banaka aztertuko dira pertsonaien helburuak, ekintzak, ekintza horiek burutzen dituzten espazioak eta beraien diseinua. Lehendabizi Anne aipatuko da, ondoren animalia antropomorfizatuak eta gero Pasai Donibaneko arrain saltzaile eta Mic-Mac emakume bikoteak. Bukatzeko, Bechdel testa aplikatu ostean plazaratutako emaitzak aipatuko dira.

Guztira 24 pertsonaia identifikatu dira: 15 gizonezko, 6 emakumezko⁴ eta 3 misto. Pertsonaia femeninoen artean gizakiak eta animaliak daude, horregatik, alde batetik emakumeak ditugu eta bestetik animalia emeak.

Honakoak dira pertsonaia femeninoak beraien agerpen kopuruaren arabera ordenatuak: Anne (21), Balea (5), Gorriti behia (5) Arrain saltzaileak (3), Mic-Mac emakumeak (1) eta Hartza (1). Filmean gehien agertzen diren bost pertsonaien artean soilik emakumezko bat dago, Anne. Neskatoa agerkunde kopuruan Peiot bere nebarekin berdinduta dago, beraz, filmeko pertsonaia nagusiak dira. Bikien atzetik honakoak dira gehien agertzen diren hiru pertsonaiak: Watuna (Mic-Mac haurra), Athanasius (filmaren bilaua) eta hurrei laguntzen dien Simon kaioa. Filmeko emakume guztiak bigarren mailako pertsonaiak edo intzidentalak dira, Anne salbuespena izanik.

Espazio eta ekintzen datuak aztertzerakoan argi dago Anne protagonista nagusia dela filmean presentzia handiena duelako eta bere helburuak lortzeko ekintza ugari burutzen dituelako. Bere helburu nagusia lortzeko —marinel bihurtzea— ezkutatu behar da, hau da, esfera pribatuan burutuko ditu bere ekintzak. Filmaren amaieran, Athanasius gainditu ondoren, bere lana esfera publikoan aintzatetsia da. Alabaina, itsasontziaren kapitainak bukaeran Anneren ausarkeria barkatzen badu ere, neskatoak egindako proposamena ez du erabat onartzen.

Anne protagonista nagusia izanik, filmaren egitura narratiboari dagokionez Joseph Campbellek (2004) definitutako heroiaren ibilbidea burutzen du. Peiot eta Watunak beraien ibilbidea betetzen duten arren, Anne gailentzen da pertsonaia nagusi bezala. Hori baieztatu dezakegu filmean askotan islatu eta aipatzen direlako emakumeek gizartean dituzten betebeharrak eta ondorioz, hauen eskubide ukatuak. Anneri hainbat aldiz argi uzten diote emakumeak ezin direla marinelak izan eta horrek, neba biki bat izanda, beraien eskubide desberdintasuna azpimarratzen du.

⁴ Berez zortzi pertsonaia femenino dira, baina rol berdina duten eta batera agertzen diren bi bikote daudenez — arrain saltzaileak eta Mic Mac emakumeak binaka agertzen dira—, hauek pertsonaia bakartzat jo ditugu.

Anne eta Peiot bikiak eta umezurtzak dira. Momentu hori arte batera eta berdin hezi dira, ekintza berdinak burutu dituzte eta eskubide berdinak izan dituzte. *Ipar Haizearen Erronka* filmaren istorioa hastearekin batera bikien gizarteratzea desberdindu egiten da. Peiotek marinela izateko aukera dauka eta bere arreba Pasai Donibanen geratzera behartzen dute. Interesgarria da gainera pertsonaien nortasunak definitzerakoan Anne marinela izan nahi duelako uste osoa duela, baina bere nebak ordea ez.

Animazioaren diseinuari dagokionez, estetikoki Anne eta Peioten diseinuak nahiko antzekoak dira. Nerabearora iritsi ez diren haurrak dira, beraz, bien arteko desberdintasun fisikoak gutxi dira. Annek ilea luzea dauka motots batekin eta bere nebak ilea motza dauka. Neskatoa soineko berde batez jantzita dago eta mutila kamiseta eta galtza marroiez. Annek probetxua ateratzen dio bere nebarekin daukan antzekotasunari; itsasontzian ezkutuko bidaiari bezala sartu ondoren bertan bizirauteko bere nebaren lekua hartzen du beste pertsonaiak nahastuz. Horrek gainera aukera ematen dio bale arrantzaleen sekretua eta Ipar Haizearen kondairaren jatorria entzuteko, Martinek, itsasontziko sukaldariak, «gizonen antzera» hitz egiten diolako, hau da, emakumeek entzun ezin dituzten istorioak dira horiek.

Esanguratsua da hori ez dela Annek gizonezko mozerroa janzen duen momentu bakarra. Itsasontziak portua utzi baino lehen Annek bidaian izena emateko saiakera bat egiten du eta marinela heldu bezala mozerrotuta agertzen da kapitainaren aurrean, trikimako eta guzti. Logikoki, helduek Anne gezurretan harrapatzen dute.

Anneren bidaiatzeko debekua sorginei —eta ondorioz emakumeei— lotuta dago. Filmean aipatzen denez gero, sorginek marinelen zori txarra eragiten dute, beraz, ezin da emakumerik eraman bidaian. Horregatik itsasontzian soilik gizonezkoak daude, emakumeak Euskal Herrian edo Ameriketako herrietan agertzen direlarik.

2. taula. Espazioak

PERTSONAIAK	ESPAZIOAK	
	PRIBATUA	PUBLIKOA
Anne	Bere helburuak lortzeko ezkutuan burutzen ditu ekintzak. Gizonek bere nahiak betetzea ukatzen diote.	Amaieran bere lanari ikusgaitasuna ematen zaio.
Balea	Bere kumeari lotuta.	/
Gorriti behia	Marinelen elikagai (esnea) iturria da.	/
Arrain saltzaileak	/	Herrian lan egiten dute.
Mic Mac emakumeak	Arroparen garbiketa, sukaldaritza eta haurren zainketari lotuak.	/
Hartza	Bere kumeari lotuta.	/

Nabarmena da aztertutako pertsonaia femeninoen artean horietako hiru animaliak direla. Gainera, bai balea, bai hartza bere kumeei lotuta daude eta beraien ekintza aktibo nagusia kumeen babesa da. Gorriti behia da izena daukan animalia eme bakarra eta izena daukaten beste bi animaliak harrak dira (Simon kaioa eta Xarpa katua). Hiru animalia hauek heroi protagonisten edota antagonistaren laguntzaile rola daukate filmean, horregatik presentzia altuagoa daukate. Hartza eta hartz kumea izan ezik, animalia pertsonaia hauek guztiak antropomorfitatuak daude, alegia, gizakien nortasun edo jokabide ezaugarriak dituzte, nahiz eta hitz egiteko gaitasunik ez izan.

Diseinuari dagokionez, balea emea dela kontsideratzen dugu alde batetik betileekin diseinatuta dagoelako eta bestetik bere ekintzak direla eta —kumearen zainketaz arduratzen denez, ama dela aurreikusten da—. Kumea harra dela uste dugu animazioaren konbentzioak ezaugarri fisiko

femeninoak ez dituzten pertsonaiak harrak direla ezartzen duelako⁵. Horregatik hartz kumea ere harra dela uste dugu. Hala ere, bale kumearen sexua zalantzarria da lehenengo plano batzuetan betileak dauzkalako eta film hasieran agertzen den bale taldeko banakako batzuen lehenengo planoetan betileak ere ikusten direlako. Horregatik ezbaian jarri daiteke soilik betileak dituzten baleak emeak izatea. Autoreekin baieztatu beharko litzateke balea guztiak betileekin diseinatu zituzten edo ez, eskura dugun filmaren kopiaren irudi kalitate eskasak ez digulako uzten egiaztapen hori egiten.

Hartzaren kasuan bere ekintzek ez ezik, hizkuntzak ere bere sexua zehazten du, Watunak «ama hartza» deitzen duelako. Gorriti behiari dagokionez, behi guztiak emeak dira eta gainera honen diseinuan neurritz gaineko errapeak nabarmentzen dira.

3. taula. Ekintzak

PERTSONAIA	EKINTZAK	
	PASIBOA	AKTIBOA
Anne	/	Bere helburuak lortzeko ahaleginak egiten ditu.
Balea	/	Anne eta Peiot laguntzen ditu. Bere kumea babesteko ahaleginak egiten ditu.
Gorriti behia	/	Anne eta Peiot laguntzen ditu.
Arrain saltzaileak (Korala)	Arriskuaren aurrean ezkututzen dira.	Beraien haserrea eta mendeku desioa erakusten dute.
Mic Mac emakumeak (korala)	Ez dute ekintzarik burutzen.	/
Hartza	/	Bere kumea babesteko ahaleginak egiten ditu.

Mic-Mac emakume bikotea zaintzari lotuta agertzen da balea eta hartza bezala. Hauek, behia gisa, elikagaien gestioari lotuta daude —errezetei buruz hitz egiten dute—, hala nola arropen garbiketari. Bestalde, esanguratsua da Mic-Mac emakumeak bakarrik agertzen direla eta beraien herritik urrun. Aipatutako komentario horietaz gain, iristear dauden euskaldunei buruz kuxkuxeatzen dute, Martin sukaldaria aipatzen dute eta harrera festan jantziko dituzten arropak eztabaidatzen dituzte. Watuna Mic-Mac haurraren ama ez da agertzen, ezta aipatzen ere, baina bai bere aita, taldeko burua dena.

Pasai Donibaneko arrain saltzaileak salbuespena dira emakumezko pertsonaien artean. Hauek espazio publikoan agertzen diren emakume bakarrik dira, izan ere, herrian lan egiten dute mundu guztiaren aurrean. Beraien lekua zein den argi utzi nahi dute eta horregatik Anne eta Peioten gaiztakerien aurka agertzen dira mendekua eskatuz. Biolentzia ere erabiltzen dute Martinen aurka, umezurtzak hezi dituen sukaldaria. Martinek piropoak zuzentzen dien bitartean —besteak beste «itsasneska eder» eta «dama xarmagarriak» deitzen ditu—, emakumeek sukaldariari leporatzen diote ez dela gai haurrak ganoraz hezteko eta horregatik hain lotsagabeak direla.

Bikiak protagonistak izanik, arrain saltzaileak modu negatiboan irudikatuta agertzen direla kontsideratzen dugu, batez ere hauek Martinen aurka ezarritako biolentzia dela eta. Martinek bere burua ez babesteak ere azpimarratzen du hori, hala nola bikiek emakumeei zuzendutako irainak —«morta erraldoiak» deitzen ditu Annek—. Bestalde, arrain saltzaileak umiliatzeko asmoarekin beldurtuta irudikatzen dira.

Mic-Mac eta Pasai Donibaneko emakumeen diseinua oso antzekoa da eta elementu nabarmenena neurritz gaineko bularrak dira. Aipatu bezala, behiaren kasuan errapeak ere behar baino handiagoak dira. Arropei dagokienez bi kasuetan gona jantzita agertzen dira; euskaldunek arrantzale jantzi urdina daramate eta Mic-Mactarrek kolore biziko alkandora eta gona. Euskaldunen kasuan beraien arteko

⁵ Kontzeptu honi buruz, Kevin S. Sandlerren “Gendered Evasion. Bugs Bunny in Drag” (1998) irakurtzea gomendatzen da. Honetan Warner Bros ekoiztetxearen animalia pertsonaia antropomorfitikoen inguruko gogoeta egiten da hauen sexuari lotutako ezaugarri fisikoak ardatz bezala hartuta.

diseinua pixka bat desberdina da, zehazki ilearen kolorea eta altuera. Mic-Mactarren kasuan desberdintasun nagusia arroparen kolorea da, pertsonaiak berdinak izanik.

Aipatutako adibide hauetaz gain, pertsonaia misto korralak daude gizon eta emakumeak aurkezten dituztenak. Hau Pasai Donibaneko eta Mic-Mac herriko biztanleak dira. Kasu honetan ez dago ezaugarri bereizgarririk.

Bechdel testa filmean aplikatu ondoren, hau erabat betetzen ez dela ondorioztatu da. Hasteko, filmean gutxienez bi pertsonaia emakumezko ateratzen direla baieztatzen da. Emakumeak ere beraien artean hitz egiten agertzen dira, baina arau hau betetzen den edo ez zalantzarik da bi arrazoi direla eta: Mic-Mac emakumeak kuxkuxeatzen eta Martini buruz hitz egiten ari dira —eta testak adierazi moduan solasaldiaren gaia ez da gizon bat izan behar— eta Annek hitzezko erantzunik ematen ez dion animaliekin soilik hitz egiten du. Gainera, esanguratsua da gizakien artean soilik pertsonaia femenino batek izena edukitzea, hau da, Anne.

4. Ondorioak

Ipar Haizearen Erronka filmean agertzen diren pertsonaia femeninoak aztertu egin dira beraien agerpena, itxura, ekintzak eta ekintzen espazioa kontuan hartuz. Argi geratu da Anne pertsonaia nagusia dela eta hau gizonezkoen artean gailentzen den pertsonaia femenino bakarra dela.

Anne eta Pasai Donibane arrain saltzaileak salbuespen, gainontzeko pertsonaiak, bai gizakiak, bai animaliak, amatasuna edota zaintzari lotuta agertzen dira. Gainera, pertsonaia hauek soilik jarrera aktiboa hartzen dute beraien kumeak babesteko. Hau da, pertsonaia hauek ez dituzte beraien ekintzak norberaren helburuak betetzera bideratzen; beraien ekintzak zaintzari lotuta agertzen dira.

Zalantzarik gabe Anne pertsonaia boteretsu bezala ikusarazten da gizartean bizi duen desberdintasun ezari aurre egin nahi diolako. Horretarako dituen baliabide guztiak erabiliko ditu bere existentzia ezkutatzera iritsiz. Horretaz gain, Bechdel testa ez da bere osotasunean betetzen eta oso esanguratsua da gizakien artean soilik batek izena izatea. Gainera, animalien kasuan amatasuna gailentzen den bitartean, Anne eta Peiot bikien zaintza gizon baten esku dago —eta hau burutu duen moduagatik kritikatu da— eta Watuna ere bere aitaren zaintzapean dago. Honek esan nahi du emakume gizakiak zaintzari lotuta dauden arren, ez dutela amaren rola betetzen.

Ipar Haizearen Erronka filmak mezu feminista positibo bat dauka Annek bere lekua gizarte eta espazio publikoan bereganatzeko egiten duen ahalegina dela eta, baina hau salbuespen bat da, oro har, emakume guztiak bigarren mailako pertsonaiak direlako eta estereotipikoak diren amatasuna eta zaintzari lotuta agertzen direlako.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Arloko egoeran aipatu den moduan, euskal animazio zinema ia aztertuta ez dagoen ikerketa objektua da. Hasteko genero ikuspuntutik eta ikerketa feministatik abiatuta *Ipar Haizearen Erronka* filmaren analisia osatu behar da. Aurretik adierazi bezala, ikerketa hau sakonagoa den beste lan baten erakuslea baino ez da, beraz, hori garatu eta aurkeztu behar da. Baina, *Ipar Haizearen Erronka* pelikula ez ezik, orokorki euskal animazio filmen hausnarketa genero ikuspuntutik egitea proposatzen da ekoizpenen arteko puntu komunak bilatzeko. Horretaz gain, emakumezko sortzaileek euskal animazioan egindako lanak aztertu behar dira.

Narrazioaren egiturari eta pertsonaien osakerari dagokienez interesgarria litzateke animazio zineman historikoki erreferente den The Walt Disney Companyren lanekin alderatzea, honek euskal narrazioetan eragina izan duen edo ez aztertzeko. Euskal animazio zinema komertziala 80ko hamarkadatik aurrera garatzen hasi zen, eta momentu horretan ekoiztetxe estatubatuar honek berpizkunde bat izan zuen. M. Keith Bookerren ustetan (2010), garai horretan Disneyk aurreko hamarkadetan harrera ona izan zuten ereduak kopia zituen. Horregatik komenigarria

litzateke euskal animazio luzemetraiak garai horretako eta aurreko urteetako nazioarteko film arrakastatsuekin alderatzea.

Euskal animazioa nahiko ezezaguna den heinean eta kontuan hartuta 40 luzemetraia baino gehiago estreinatu direla, beharrezkoa da honi buruzko ikerketak sustatzea ikuspuntua edozein izanik —generoa, ekoizpena, autoreak, narratiba, adaptazioak, animazio teknikak, promozioa...—. Euskal animazioaren garrantzia euskal zinematografian ikusarazi behar da eta hori soilik ikertuz eta ikerketa hauek argitaratuz lortuko da.

6. Erreferentziak

Kuhn, A (1991): *Cine de Mujeres. Feminismo y Cine*. Cátedra, Madril.

Batkin, J (2017): *Identity in Animation: A Journey into Self, Difference, Culture and the Body*. Routledge, Oxon&New York.

Booker, M.K. (2010): *Disney, Pixar and the Hidden Messages of Children's Films*. Praeger, Santa Barbara.

Campbell, Joseph (2004): *The hero with a thousand faces*. Princeton University Press, Princeton.

Cano Calderón A. (1993): “El cine para niños, un capítulo de la Literatura infantil”, Revista interuniversitaria de formación de profesorado, 18 zenbakia, 53-57.

Rajadell i Puiggròs, N. et al (2005): “Los dibujos animados como recurso de transmisión de los valores educativos y culturales”, Comunicar: Revista científica iberoamericana de comunicación y educación, 25.

Junguitu Dronda, M (2019): *Kalabaza Planeta eta Juanba Berasategi. Panorámica de la animación comercial vasca*. Argitaratu gabeko doktoretza tesia. Zuzendariak: Nerecan Umaran, A; Gutierrez Paz, M.A.

Sandler K.S. (1998): “Gendered evasion. Bug Bunny in Drag”, in Sandler K.S. (ed), *Reading the Rabbit: Explorations in Warner Bros Animation*. Rutgers University Press, New Brunswick&New Jersey&London, 156-171.

7. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa hau argitaratu gabe dagoen azterketa sakonago baten erakuslea da. Beste ikerketa horretan, *Ipar Haizearen Erronka* filmean agertzen diren emakumezko eta gizonezko pertsonaiak aldagai gehiago erabilita aztertzen dira. Gainera, filmeko gizonezko pertsonaien maskulinitateari buruzko gogoeta egiten da. Horretaz gain, hainbat iturri bibliografiko erabiltzen dira XVI. mendeko euskal gizartearen irudikapena egiteko. *Ipar Haizearen Erronka* filmaren analisiaren esanahiak orokorrean ikertzean feminismoaren presentzia aztertzen ditu Maitane Junguitu Drondak (2019) bere doktore tesian.